



Gezur mehararak

Munduko biztanleetatik hiru laurdenak gosez hiltzen diren bitartean, beste laurdena janariaren ondorio estetikoek arduratzen da. «Danone gorputzen» estereotipoak bultzatuta, gazte askok jateari uzten dio. «Kilo batzuk jaisteko» edo «bainujantzi berria erosteko» aitzakian, dieta bereziak egiten dituzte. Askotan, dietak gainditzen ditu. Anorexia gaixoak dira.

NAGORE EZ DA NAGORE, BAINA IZENA GUTXIENENKOÀ DA. EZ ZAIGU BERE IRUDIA INTERESATZEN, KONTA DIEZAGUKEENA BAIZIK. HEMEZORTZI URTEREKIN ONARTU ZUEN, MEDIKUAK ESAN ZIOLAKO, ANOREXIA ZUELA. 31 KILO PISATZEN ZUEN ORDUAN.

Egun hogei urte ditu eta guztiz osatua ez dagoen arren, gaixotasunaz hitz egin nahi duela esan digu. «Nire historia aspaldikoa da. Txikitari oso jale ona nintzen, baina zortzigarren mailan jateko ohiturak aldatu nituen. Ez zen aldaketa handia izan, lehen gehiegi jaten bainuen. Gaixotasuna geroago etorri zen. Hamabost urte bete nituean, kilo batzuk galtzea oru zitzaidan. Ohiko pisua 53 kilo izan da, baina orduan 47 nituen. Dietaren ondorioz, 40 kilora jaitsi nintzen eta horrek arduratu egin nin-

duen, baina nahiko ondo osatu nintzen berriro». Ez da gehiago bere ohiko pisura itzuli, baina garai hartan ez zen larritu.

Urte eta erdi geroago hasi ziren arazoak. «95eko abuztuaren hasi zen dena. Jateari utzi nion. Lau hilabetetan hamar kilotik gora galdu nuen. Lehengo bietan entsalada bakarrik jan nuen eta beste bietan pepino bat eta ura sakarinarekin. Azaroan medikuarengana joan ginenean, 37 kilo nituen eta medikuak anorexia nuela esan zidan. Nik, lehenengo aldiz, onartu egin nuen». Bere kabuz irtengo zela zin egin zien medikuari eta gurasoei. Baina abenduaren amaieran 31 kilo pisatzen zuen. «Garai hartan nuen helburua iztarreko hezurra eskuarekin hartzea zen. Ezin nintzen eseri, ipurdiko hezurrek min ematen zidatelako eta eguneko loa, batez beste, bi ordukoa izaten zen. goizeko 5etatik 7etara. Hain egoera larria ikusita, nire gurasok ospitalean sartzea erabaki zuten. psikiatri unitatean».